



ALTZOKO UDALA

OHIKO PLENORAKO DEIA.

LEKUA: Altzoko Udaletxea

EGUNA: 2026ko otsailak 25, asteazkena,

ORDUA: arratsaldeko 15:30etan.

G A I - Z E R R E N D A

- 1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.
- 2.- MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENAREN ONESPENA.
- 3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZien aurrean (“GI-3620 ERREPIDETIK ABIATZEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)
- 4.- ERREPOSIZIO ERREKURTSOA DELA ETA ERABAKIAK: JIAT-k ALTZOKO UDALAK 2025-12-16AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA (F.M.-REN AURKA JARRI ZUEN SALAKETA ARTXIBATZEA-REN KONTRA)
- 5.- UDAL BIZTANLEEN ERROLDAREN ERREBISIOA (2026-01-01)
- 6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.
- 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Altzon, 2026ko Otsaila



ALTZOKO UDALA

AKTA

2026ko otsailaren 25ean, asteazkenean: Osoko Bilkura.

Altzoko Udaletxean, 2026ko otsailaren 25ean, asteazkenean, arratsaldeko 15:30etan, behean zerrendatzen direnak bertan izanik, Osoko Bilkura burutu da.

Lehendakaria: Xabier Olano Jauregi
Zinegotziak: Ainara Garcia Bravo
Xabier Murua Zubizarreta
Enaitz Aizpitarte Murua
Loli Arandia Azpeitia
Jaione Galarraga Zabala
Alaitz Bilbao Garay
Idazkaria: Olga Urbizu Urreaga

G A I - Z E R R E N D A

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.

Aho batez onartu da 2026ko otsailaren 2ko Osoko Bilkurako akta eta web orrian informazioa emateko plataforman argitaratzea erabaki da.

2.- MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENAREN ONESPENA.

Altzoko Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideak bertan direla, aho batez, ondorengo adierazpena onartu du Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna dela eta:

“Martxoak 8- Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala”

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrarekin dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko hori ukaezina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko, bere diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari baita komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu kezagarrian, giza harremanetarako eguneroko espazioetan.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu antifeminista baten goraldian gaude gaur egun, diskurtso erreazionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarrizko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. **Diskurtso antifeministak** erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu .

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: **giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua.** Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzeko dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizarte aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu **berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela guztientzako askatasunik.**



Martxoaren 8an, euskal udalek dei egiten diegu herritar guztiei eta erakunde guztiei batuta eta elkartuta irrimo egon gaitezen **lortutako eskubideak defendatzeko** eta, atzera pausurik gabe, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Horregatik, Altzoko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gure udalerrri eta eskualdeetan taldeak sor daitezten sustatzea, diskurtso misogino eta antifeministei aurre egiteko eta informazio faltsuen hedapena desaktibatzen laguntzeko.
- Tokiko eremutik lehentasunezko kolektiboekin esku hartzea, haien jarrera antifeministak eta maskulinitate toxikoak desmuntatzeko.
- Erresistentzia-aliantzak sustatzea talde feminista eta tokiko beste eragileekin, jarrera antifeministak identifikatzeko eta eteteko bizikidetzak-espazioetan eta komunitate birtualetan.
- Baliabideak eta egiturak zaintzea eta babestea, gure udalerrian berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten.

Halaber, Altzoko Udalak, dei egiten diegu herritarrei bat egin dezaten Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Egunean tokian-tokian antolatzen diren deialdi eta aldarrikapenekin bat egin dezaten.”

Amaitzeko Udalak erabaki du erabaki hau Udalaren 3 iragarki oholetan jartzea herritarrek bere berri izan dezaten.

3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZIEen aurrean (“GI-3620 ERREPIDETIK ABIATZEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)

Ikusirik, “Gai bera eta interesatu/eskatzaile berdina” puntuak aztertuko direla gaurko Osoko Bilkuran ere, Alkateak adierazi du lan zama horrek asko zailtzen duela Udalaren eguneroko jarduera eta oso nekeza egiten duela garaiz erantzutea.

- Ofiziozko berrikuspenera tramitera ez onartzeagatik Alegazioa

2025-07-09an JIATek Altzoko Udalari eskatu zion ofizioz deuseztatu ditzala Udala erabaki batzuk: 2004/62 Dekretua, 2005/23 Dekretua, 2006/22 Dekretua eta 2008/15 anulatu ditzala.

2025-11-03ko Plenoan Udalak besteak beste erabaki zuen; “Legezko Txostena berretsiz Jose Ignacio Arandiaren errebisio eskaera TRAMITERA EZ ONARTZEA eta 15 egunetako entzunaldi epea ematea egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ditzan.” Erabaki hau 2025-11-21ean jaso zuen JIATek.

2025-11-28an aurkeztu zuen azaroaren 3ko erabakiaren aurkako Alegazioa.

Gaia aztertzen duen Legezko Txostena aurkeztu da.

Udalak Txostena aztertu du eta Korporazioa osatzen duten zazpi kideak bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batez **ERABAKI DA:**

Lehenengoa: Legezko Txostena berretsiz Jose Ignacio Arandia Tolosak 2025-11-03ko Osoko Bilkurako erabakiaren aurka jarritako alegazioak ez onartzea.

Bigarrena: 2025eko azaroaren 3ko Plenoko erabakia berrestea eta beraz ez onartzea 2004/62 Dekretua, 2005/23 Dekretua, 2006/22 Dekretua eta 2008/15 Dekretuetan dauden erabakiak ofizioz errebisatzea.



ALTZOKO UDALA

Hirugarrena: erabakia eta txostena JIATri jakinaraztea.

4.- ERREPOSIZIO ERREKURTSOA DELA ETA ERABAKIAK: JIAT-k ALTZOKO UDALAK 2025-12-16AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA (F.M.-REN AURKA JARRI ZUEN SALAKETA ARTXIBATZEA-REN KONTRA)

2025ko abenduaren 27an JIATak berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen Altzoko Udal Osoko Bilkuraren 2025-12-16ko erabakiaren aurka, hau da, Altzoko Udalak JIATek FMren aurka jarritako salaketa, artxibatzearen erabakiaren aurka.

Espedientea aztertu da eta lege txostena egin da.

Udalak, Espedientea aztertuta, Korporazioa osatzen duten zazpi kideak bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batez **ERABAKI DA:**

Lehenengoa: Errekurtsua estimatzea eta beraz JIATek F.M.-ren aurka jarri zuen salaketa artxibatzeke Udal Akordioa deuseztatzea eta erabaki berri bat hartzeko izapidea burutzeko prozesua martxan jartzea erabaki da.

Bigarrena: erabaki hau eta txostena jakinaraztea salaketa eta errekurtsua jarri dituen JIATi eta salatua izan den FMGri.

5.- UDAL BIZTANLEEN ERROLDAREN ERREBISIOA (2026-01-01)

Idazkari-Kontuhartzaileak, 2025ko urtarrilaren 1ean errebisatu zen Biztanleen Erroldak, orduetik 2026ko urtarrilaren 1a arte jasan dituen aldaketen berri eman du ondorengo moduan:

- **2025ko urtarrilaren 1ean** Altzon erroldatuta dauden biztanle kopuruak hauek dira:

GUZTIRA:	448
EMAKUMEAK:	236
GIZONAK:	212

- **2026ko urtarrilaren 1ean** Altzon erroldatuta zeuden biztanle kopuruak hauek dira:

GUZTIRA:	448
EMAKUMEAK:	232
GIZONAK:	216

Data batetik bestera **11 alta eta 11 baja** eman dira.

11 alten artean **1 jaiotza eta beraz 10 etorkin** gertatu dira.

11 bajeen artean **2 heriotza gertatu dira eta beste 9ak beste herri batetara joan direnak** daude.

Jarraian, Udala osatzen duten zazpi kideak bertan izanik, aho batez **ERABAKI DA:** 2026-01-01eko Altzoko Biztanleen Zifra Ofiziala 448 biztanle direla aitortzea eta jakinaraztea behar den lekuetan.

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak aurreko Plenoaz geroztik erabaki dituen Dekretuen berri eman du, 2026/7tik 2026/10 (2026/7 Alkateordeak sinatuta dago), biak barne, Dekretuak irakurriz. Gainontzekoak jakinaren gainean gelditu dira.



ALTZOKO UDALA

7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.

Gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu diren 3.000 €tik gorako fakturak edo ordainketak ondorengoak dira:

- A ZL: 6.677,66 €, JU2ko Iberdrolaren urbanizazio lanen ondorioz izandako kalteen ordainketa, 2026/9 Dekretuz erabakita.
- F MG: 3.904,62 €, JU2ko Iberdrolaren urbanizazio lanen ondorioz izandako kalteen ordainketa, 2026/9 Dekretuz erabakita.
- AZPEITIA ELEKTRIZITATEA SL: 9.293,28 €, Imaz Bertsolaria Eskolako argitegian egokitzapen lanak (Udaleraiki 2025).

Diru laguntzak:

- HARITUZ Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea; 500 €, 2026ko diru laguntza ekarpena.

Puntu honekin amaitzeko, informatu da Altzoko Udaletxean, gaurko egunez, 466.064,83 € daudela bi kontuetan; hauetatik 216.064,83 € eguneroko ordainketak eta sarrerak egiteko eta 250.000 € gordailu kontuan.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Guztien adostasunez ondorengo gaia aztertu da:

Altzoko Haurreskola berriz irekitzeko aukera aztertzea

Altzoko Haurreskola, 2025-26 ikasturtean ez da ireki, haur faltagatik. Berriz irekitzekotan gutxienez 3 haur egon behar dira.

Aurreko Osoko Bilkuran erabakitakoa betez, Ainara Garcia zinegotziak informatu du gurasoekin egon dela eta datorren ikasturtean Haurreskola Altzon irekitzen bada gutxienez 3 haur izango direla konfirmatu du.

Hau kontutan izanik ERABAKI DA Udala Haurreskolak Partzuergoarekin harremanetan jartzea 2026-27an Altzoko Haurreskola berriz irekitzeko izapideak egiteko.

Eta beste gairik ez denez aurkeztu Alkateak 16:30etan bilkura amaitutzat eman du.

Altzon, 2026ko otsailaren 27an, (2026-03-26ko Osoko Bilkuran onartutako Akta)
Alkateak o.e. Idazkariak.